

Polinizatzaileen aniztasuna babestea ezinbestekoa da ekosistemen jasangarritasuna bermatzeko



Ikerketaren emaitzen arabera, polinizatzaile basatiek ezti-erleek baino eragin handiagoa daukate landareen ugalketan. Argazkian kolibri-esfinge bat (*Macroglossum stellatarum*).
ARG.: Charles J. Sharp/CC BY-SA 4.0.

Polinizatzaileen aniztasuna galtzeak kalte egiten die bai landare basatiei bai laborantzak-landareei ere, eta polinizatzaileen aniztasuna babestea ezinbestekoa da ekosistemen jasangarritasuna bermatzeko. Horixe berresten du EHuko eta BC3ko iker-tzaileek egindako metaanalisia batek.

Gai horren inguruan egin diren ikerlan gehienetan aztertzen dena da zer gertatzen den polinizatzaileak erabat desagertzen direnean, eta halako ikerketak laborantzako espezieekin egin izan dira batez ere. EHuko Landareen Biologia eta Ekologia saileko ikertzaile Maddi Artamendik eta BC3ko Ainhoa Magrachekek gidatu duten ikerketa honetan, ordea, ikuspegi errealistago bat hautatu dute. Izan ere, azaldu dutenez, polinizatzaileen dibertsitatea jaitsi egingo da, jaisten ari da, baina ez da erabat desagertuko. Eta, laborantzako landareez gainera, landare basatiak ere hartu dituzte kontuan.

Ikerketak erakutsi duenez, polinizazio-lanak egin dituzten animalien dibertsitatea murrizteak eragin negatibo nabarmena du landareen ugaltze-arrakastan, eta, gainera, eragina handiagoa da landare basatietan laborantzakoetan baino.

Emaitzen arabera, polinizatzaile basatiek eragin handiagoa daukate landareen ugaltze-arrakastan ezti-erleek baino. Bestalde, eragin nabarmenagoa du polinizatzaile ornogabeak galtzeak polinizatzaile ornodunak galtzeak baino; gautarrak galtzeak egunez dabilzanak galtzeak baino, eta polinizatzaile basatiak galtzeak domestikoak galtzeak baino.

Ikerketa metaanalisiaren bidez egin dute: tresna estatistikoak erabiliz eta ikerketa-bilduma handi bateko datuak sintetizatuta. Hala, 46 herrialdetan egindako 207 ikerketen metaanalisia egin dute Artamendik eta Magrachekek.

Ikertzaileek ondorioztatu dute polinizatzaile guztiek dutela bere rola bai laborantzak-landareetan bai landare basatietan. Ezti-erleak baino askoz polinizatzaile gehiago daude, eta ikusi dute denek daukate garrantzi handia landareen ugalketa-arrakastan eta landare-dibertsitatea mantentzen. Hala, ikertzaileek azpimarratu dute arreta ez dugula bakarrik laborantzako landareetan eta erleetan jarri behar, ikuspegia zabaldu beharra dagoela; eta premiazkoa dela polinizatzaileen dibertsitatea murriztarazten duten faktoreak arintzea. ●